

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO LANGILEENTZAKO KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUA LANeko SEGURTASUNeko, INDUSTRIA HIGIENeko, ERGONOMIAKO, PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUKO ETA OSASUNAREN ZAINTZAKO ESPEZIALITATEETAN KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKOA, ARAUTU BEHARKO DUENA

- 1. KONTRATUEN XEDEA ETA APLIKAZIO ESPARRUA**
- 2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**
- 3. ESLEIPEN PROZEDURA**
- 4. ALDAERAK**
- 5. KONTRATU DOKUMENTAZIOA**
- 6. IRAUPENA**
- 7. LIZITAZIOAREN URTEKO GEHIENeko AURREKONTUA ETA KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA**
- 8. PREZIOA ORDAINTZEA**
- 9. PREZIOAK BERRIKUSTEA**
- 10. PUBLIZITATEA**
- 11. BEHIN BETIKO BERMEA**
- 12. GAITASUN BALDINTZAK**
- 13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**
- 14. BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 15. EBALUAZIO BATZORDEA**
- 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA**
- 17. KONTRATUAK ESLEITZEA**
- 18. KONTRATUAK BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA**
- 19. KONTRATUEN ARDURADUNA**
- 20. KONTRATUAK GAUZATZEA**
- 21. FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK**
- 22. DATU PERTSONALEN BABESA**

**23.KONFIDENTZIALITASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO
EGINBEHARRA**

24.ASEGURUAK

25.PENALIZAZIOAK

26.KONTRATUAK LAGATZEA

27.AZPIKONTRATATZEA

28.KONTRATUEN ALDAKETAK

29.ENPRESA ESLEIPENDUNAREN/ESLEIPENDUNEN ERANTZUKIZUNA

30.KONTRATUAK ETETEA

31.KONTRATUAK SUNTSIARAZTEA

32.ERREGIMEN JURIDIKOA

33.JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA. ABAL EREDUA

**II. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK HARTZEKO LEHENTASUNEZKO
BITARTEKOA IZENDATZEA**

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA

IV. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

V. ERANSKINA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

**VI. ERANSKINA. ADIERAZPENEN GUTUNAREN EREDUA, GALDATUTAKO
KAUDIMENA ETA/EDO GUTXIENEO GIZA BALIABIDE JAKIN BATZUK
ATXIKITZEKO KONPROMISOA EGIAZTATZEKO, LIZITATZAILEAK BESTE
ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN ETA/EDO BALIABIDEETAN
OINARRITZEKO ASMOA DUENERAKO**

VII. ERANSKINA. ASEGURU ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRIA

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO LANGILEENTZAKO KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUA LANeko SEGURtasuNEKO, INDUSTRIA HigIENEKO, ERGONOMIAKO, PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUKO ETA OSASUNAREN ZAINtzAKO ESPEZIALITATEETAN KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKOA, ARAUTU BEHARKO DUENA

1. KONTRATUEN XEDEA ETA APLIKAZIO ESPARRUA

Lizitazio honen xedea da enpresa(k) hautatzea DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO langileentzako kanpoko prebentzio zerbitzua egiteko, laneko segurtasuneko, industria higieneko, ergonomiako, psikosozioologia aplikatuko eta osasunaren zaintzako espezialitateetan, agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitakoaren arabera.

Ondoren adieraziko diren DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK kudeatutako zentroetan zerbitzuak egiten dituzten DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO langileei egingo zaie prebentzio zerbitzua.

Prebentzio zerbitzua DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO langile guztiei hedatuko zaie, hari atxikitako zentroetan unean-unean zerbitzuak egiten dituztenei, nahiz eta kontratua indarrean dagoen bitartean zentroak behin betiko edo aldi baterako itxi, zentro berriak atxiki, langileak gutxitu edo gehitzen diren, izan ere kasu horietan ezin izango baita inongo aldaketarik egin kontratuen prezioan.

Honako hauek dira gaur egun kudeatutako zentroak:

*Alderdi Ederreko Udal Liburutegia
Fermin Calbeton kaleko Haur Liburutegia
Konstituzio plazako Bulego Eraikina
Casares Kultur Etxea
Aiete Kultur Etxea
Ipuinen Dorrea
Altza Kultur Etxea
Tomasene Kultur Etxea
Larratxoko Liburutegia
Egia Kultur Etxea
Ernest Lluch I Kultur Etxea
Ernest Lluch II Kultur Etxea
Larrotxene Kultur Etxea
Intxaurrondo Kultur Etxea
Lugaritz Kultur Etxea
Antiguako merkatua
Loiola Kultur Etxea
Okendo Kultur Etxea
Igarako biltegiak
Igarako biltegiak (Festak)
Mundaizko biltegia*

*Larratxoko biltegia
Zorroagako biltegia
Mateo Errotako biltegia
Martuteneko biltegia (Redur)
Intxaurrondo Berriko biltegia*

*San Telmo Museoa
Urgull mendiko Damen Bateria (liburutegia)
Urgull mendiko bolborategia (Damen Bateriatik hurbil)
Urgull mendiko Mota Gaztelua
Urgull mendiko Napoleonen bolborategia (kanoi biltegia)
Gobernadorearen Bateria (Natur Txokoa)*

*Victoria Eugenia Antzokia
Antzoki Zaharra*

Kontratazioa bi lotetan zatitzen da, ondoren banakatzen den moduan. Enpresa lizitatzailerik lote baterako edo bietarako eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte.

1. LOTEA.- Laneko segurtasuneko, industria higieneko, ergonomiako eta psikosoziologia aplikatuko espezialitateetako prebentzio zerbitzua.

2. LOTEA.- Osasunaren zaintzako espezialitateko prebentzio zerbitzua.

1. loteari dagokionez, enpresa kontratistak lote horren xede diren zerbitzuak egin beharko ditu (psikosoziologia aplikatuko zerbitzua izan ezik) gutxienez urtean 468 orduz (astean 9 ordu, 2 lanalditan banatuta: 5 ordu egun batean eta 4 ordu bigarrenetan, goizez edo DONOSTIA KULTURAK zehazten duen ordu banaketaren arabera). Eta psikosoziologia aplikatuko zerbitzuak gutxienez urtean 30 orduz egin beharko ditu.

Gainera, kontratua formalizatu ondoren ikusitako beharrak direla eta, DONOSTIA KULTURAK, egokitzen jotzen badu, psikosoziologia aplikatuko zerbitzuan aurreko paragrafoan adierazitako gutxieneko 30 orduak baino gehiago egiteko eskatu ahal izango dio kontratistari. Ordu horiek Agiri honen 7. klausularen arabera zehaztutako prezioan egin beharko ditu kontratistak.

Horrek ez du inongo konpromisorik ekarriko DONOSTIA KULTURARENTZAT, kontratistari aurreko paragrafoan aurreikusitako psikosoziologia aplikatuko zerbitzu gehigarriak eskatzeari dagokionez. Dena den, DONOSTIA KULTURAK ezin izango dio enpresa kontratistari eskatu adierazitako gutxieneko 30 orduz bestelako 30 ordu baino gehiago egiteko.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratatzailea DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA da (DONOSTIA KULTURA aurrerantzean).

Kontratazio Organoa DONOSTIA KULTURAKO zuzendari kudeatzailea da.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratuak prozedura irekiaren bidez esleituko zaizkio lote bakoitzerako eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitatzaileari, Agiri honetan ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta.

4. ALDAERAK

Ez dira onartzen.

5. KONTRATU DOKUMENTAZIOA

Kontratukotzat hartuko dira, esleipenaren ondoren formalizatzen diren kontratuez gain, Agiri hau, Baldintza Teknikoen Agiria eta enpresa esleipendunak edo esleipendunek aurkezten dituzten eskaintzak.

Enpresa esleipendunak/esleipendunek dokumentu horiek sinatu beharko ditu/dituzte, ados dagoela/daudela frogatzeko, kontratuak formalizatzeko egintzan.

6. IRAUPENA

Kontratuen iraupena urtebetekoa izango da, haiek formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera, eta hurrenez hurrengo urteko hiru luzapen izan ditzake, erakunde kontratatzaileak bakarrik eskatuta ere. Beraz, kontratuen gehieneko iraupena, luzapenak barne, **lau** urtekoa izango da.

Luzapenaren jakinarazpena indarreko kontratuak amaitu baino 3 hilabete lehenago egingo da gutxienez, eta nahitaezkoa izango da enpresa esleipendunarentzat/esleipendunentzat.

7. LIZITAZIOAREN URTEKO GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUEN BALIO ZENBATETSA

Lizitatzailerek beren proposamen ekonomikoan adierazi beharko dute kontratuaren xede diren zerbitzuak zein preziotan egingo dituzten.

- **1. loteari dagokionez ("Laneko segurtasuneko, industria higieneko, ergonomiako eta psikosoziozologia aplikatuko espezialitateetako prebentzio zerbitzua"):**

1. lotearen xede diren zerbitzuak egiteko lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua 29.404,44 eurokoa da (BEZa kanpo).

Lizitatzailerek lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontu hori murriztu ahal izango dute aurkezten duten proposamen ekonomikoan.

Lizitatzailleek kontu sail bereizi batean adierazi beharko dute DONOSTIA KULTURAK jasan beharko duen BEZa.

Ildo horretan, enpresa kontratistak 1. lote horretako zerbitzuak egin beharko ditu (psikosoziologia aplikatuko zerbitzua izan ezik) gutxienez urtean 468 orduz (asteen 9 ordu, 2 lanalditan banatuta: 5 ordu egun batean eta 4 ordu bigarrenetan, goizez edo DONOSTIA KULTURAK zehazten duen ordu banaketaren arabera).

Halaber, enpresa kontratistak gutxienez urtean 30 orduz egin beharko ditu psikosoziologia aplikatuko zerbitzuak.

Gainera, kontratua formalizatu ondoren ikusitako beharrak direla eta, DONOSTIA KULTURAK, egokitzat jotzen badu, psikosoziologia aplikatuko zerbitzuan aurreko paragrafoan adierazitako gutxienerako 30 orduak baino gehiago egiteko eskatu ahal izango dio kontratistari. Ordu horiek 1. lotearen xede diren zerbitzuak egiteko eskainitako urteko prezioa zati 498 egitearen emaitzazko prezioan egin beharko ditu kontratistak.

- **2. loteari dagokionez ("Osasunaren zaintzako espezialitateko prebentzio zerbitzua"):** Lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua 15.099,84 eurokoa da (BEZa kanpo).

Lizitatzailleek lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontu hori murriztu ahal izango dute aurkezten duten proposamen ekonomikoan.

Lizitatzailleek kontu sail bereizi batean adierazi beharko dute DONOSTIA KULTURAK jasan beharko duen BEZa.

Eskaintzen diren prezioetan sartutakotzat ulertuko dira zerbitzuek berezkoak dituzten kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak egiteko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldadak eta Gizarte Segurantzaren, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jaiegunetan egiten diren lanak, langileen baja edo gaixotasunen ondoriozko ordezkapenak, uniforme guztiak, istripu indibidualetarako aseguruak, eta abar), baita zerga (BEZa izan ezik), aseguru, lizentzia, baimen eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

Eskainitako prezioetan sartutakotzat ulertuko dira, halaber, kontratistak, hala badagokio, kontratuak gauzatzeko erabili behar dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu eta tresna guztiak.

Enpresa esleipendunari/esleipendunei jasanaraziko zaizkio/zaizkie lizitazioaren deialdia egiteko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzearen eta kontratuak formalizatzearen ondoriozko gastuak.

Enpresa esleipendun bat baino gehiago baldin badaude, iragarkia argitaratzearen ondorio diren gastuak haien artean banatuta jasanaraziko zaizkie, esleitu zaien lotearen balio zenbatetsiaren arabera.

3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren -azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duena- 88.

artikuluaren ondorioetarako, kontratuen guztizko balio zenbatetsia **193.096,32 eurokoa** da, lote bakoitzean –izan litezkeen luzapenak barne– honela xehakatua:

1. LOTEA.- Laneko segurtasuneko, industria higieneko, ergonomiako eta psikosoziologia aplikatuko espezialitateetako prebentzio zerbitzua: **132.696,96 euro**

2. LOTEA.- Osasunaren zaintzako espezialitateko prebentzio zerbitzua: **60.399,36 euro**

Balio zenbatetsi hori SPKLTBren 88.5 a) artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da. Hau da, kontuan hartu da aurreko hamabi hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen balio erreala, hasierako kontratuen ondorengo hamabi hilabeteetarako aurreikusitako kopuru aldaketen arabera doituta eta kontratuek izan dezaketen iraunaldi osorako zenbatuta, izan litezkeen luzapenak barne direla.

Kontuan izanik, lehen klausulan 1. loteari buruz aurreikusitakoaren arabera, DONOSTIA KULTURAK psikosoziologia aplikatuko zerbitzu gehiago eskatzeko ahalmena duela, balio zenbatetsi horren kalkuluan kontuan hartu da, halaber, zehaztutako ordu gehigarrien gehieneko kopuruaren arabera (hots, gehienez ere beste 30 ordu) kontratuak izan dezakeen gehieneko zenbatekoa.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Hileroko ordainketak egingo dira, enpresa esleipendunak/esleipendunek kasuan-kasuan dagokion/dagokien faktura edo fakturak aurkeztu eta gero. Faktura horretan lizitazio espedientearen zenbakia agerrarazi beharko da.

Hilero ordaindu beharreko zenbatekoa honela zehaztuko da:

- **1. loteari** dagokionez, hilero ordainduko da urteko esleipen zenbatekoa hileko hamabi ordainketatan zatitzeko eragiketaren emaitzazko kopurua.

Gainera, DONOSTIA KULTURAK eskatu ondoren, adierazitako gutxieneko zerbitzuak baino gehiago egin badira, Agiri honen **1. eta 7. klausuletan** xedatutakoaren arabera, dagokion hileko fakturari gehituko zaio hil horretan egindako zerbitzu gehigarri guztiak eta kontratistak egindako ordu efektibo guztiak bilduko dituen txostena.

Kasu horretan, DONOSTIA KULTURAK kontratistari zerbitzu horiengatik ordaindu beharreko prezioa 1. lotearen xede diren zerbitzuak egiteko eskainitako urteko prezioa zati 498 egitearen emaitzazko prezioari egindako ordu kopuru efektiboa aplikatzearen emaitzazkoa izango da.

- **2. loteari** dagokionez, hilero ordainduko da urteko esleipen zenbatekoa hileko hamabi **ordainketatan** zatitzeko eragiketaren emaitzazko kopurua.

Kontratistak kasuan kasuko hilaren hurrengo hileko lehen 10 egun naturaletan igorri beharko du faktura.

DONOSTIA KULTURAK zerbitzuei dagokien hila amaitzen denetik hasi eta 30 egun naturaleko epean ordainduko du egindako zerbitzuen prezioa, baldin eta faktura (edo fakturak) arestian adierazitako epean jaulki bada eta dagokion oniritzia eman bazaio.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dagokio

10. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuen esleipena DONOSTIA KULTURAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuen formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

DONOSTIA KULTURAREN kontratatzailearen profil horretarako sarbidea web-orri honen bitartez egingo da: <http://www.donostiakultura.com>.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuen enpresa esleipendunak/esleipendunek behin betiko berme bakarra eta bereizigabea eratu beharko du/dute erakunde kontratatzailearen alde, hartutako betebeharrak beteko dituela/dituztela ziurtatzeko. Berme hori dagokion lotearen balio zenbatetsiaren % 5ekoa izango da, BEZa kanpo.

Lote bakoitzean eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen/duten enpresa lizitatzailleak/lizitatzailleek hamar egun balioduneko epean eratu beharko du/dute bermea, Kontratazio Organoak egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako edozein modutan eratu ahal izango dute bermea.

Bermea eskudirutan eratuz gero, dagokion zenbatekoa Kutxabank erakundearen 2095 0611 09 1061519723 kontu korrontean ordainduta egingo da.

Abal moduan eratuz gero, Agiri honi **I. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Bermea bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da.

Bermea/bermeak SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da/dira, berme epea igaro eta enpresa esleipendunak/esleipendunek kontratuko betebeharrak guztiak bete ondoren.

Bermea/bermeak itzultzeko, alde z aurretik erakunde kontratatzaileak aldeko txostena eman beharko du.

Behin betiko bermearen/bermeen gainean enpresa esleipendunari/esleipendunei eska dakizkiokeen/dakizkiekeen penalizazioak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, esleipendunek bermea/bermeak berrezarri edo handitu egin beharko dute/dituzte dagokion/dagokien zenbatekoan, hura/haiek gauzatzen direnetik hasi eta hamabost egun naturaleko epean. Hala egin ezean, kontratuak suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuen aldaketaren baten ondorioz haien prezioa aldatzen bada, enpresa esleipendunak/esleipendunek berregokitu egin beharko du/dute behin betiko bermea (edo bermeak), aldatutako prezio berriarekin behar den bezalako proportzioa gorde dezan. Enpresa esleipendunak/esleipendunek hamabost egun naturaleko epea izango du/dute, aldatzeko erabakia/erabakiak jakinarazten den/diren egunetik hasita, bermearen/bermeen aldaketa hori egiteko.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. GAITASUN BALDINTZAK

DONOSTIA KULTURAREKIN kontratatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta kaudimena egiaztatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoak.

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuen zehaztapen teknikoak edo prestaketa dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte hartze horrek lehia librerako murrizketak eragin baditzake edo gainerako enpresa lizitatzailleekiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailleek, halaber, kontratuen xede diren zerbitzuak gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuaren zerbitzuak haien estatutuen edo eratze-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo esparruaren barruan egotea.

Nolanahi ere, DONOSTIA KULTURAREKIN kontratatzeko ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetakoen enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuan prestazioa egiteko gaituta badaude. SPKLTBren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren estatuetakoen pertsona fisikoen edo juridikoen kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen ordezkaritza diplomatiko iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde

esparruko bulego kontsularren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

DONOSTIA KULTURAREKIN kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua/kontratuak haien alde esleitu arte. SPKLTBren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta tekniko edo profesionalaren gutxienezko baldintzak eta kontratua gauzatzeari giza baliabideak atxikitze konpromisoa:

A) 1. LOTEA.- Laneko segurtasuneko, industria higieneko, ergonomiako eta psikosoziologia aplikatuko espezialitateetako prebentzio zerbitzua.

Lizitatzailerak guztiek egiaztatu beharko dute ondoren adierazitako kaudimen tekniko edo profesionala daukatela:

- 1. lotearen xede diren antzeko lanak egin izana. Ildo horretan, azkeneko hiru urteetan (2013, 2014 eta 2015), gutxienez, 1. lotearen xedea osatzen duten zerbitzuen antzekoei —izaeran eta zenbatekoan— dagozkien bi kontratu egin izana egiaztatu beharko dute.

Kaudimena ziurtatzeko, gainera, gutxienez ondoren adierazitako giza baliabideak **kontratua gauzatzeari atxikitze konpromisoa** hartu beharko dute lizitatzailerak:

1. Laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikari bat, laneko segurtasuneko, industria higieneko, ergonomiako eta psikosoziologia aplikatuko espezialitateetan, arkitekturako, arkitektura teknikoko edo eraikuntzaren ingeniartzako titulazioa eta espezialitate horietan gutxienez bost urteko esperientzia frogatua duena, Baldintza Teknikoen Agiriaren **I. eranskinean** jasotzen diren funtzioak eta zereginak betetzeko, Baldintza Teknikoen Agiriaren **1.B klausulan** xedatutakoaren arabera.
2. Laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikari bat, ergonomiako eta psikosoziologiako espezialitatean, psikologiako titulazioa eta gatazka psikosozialeko gatazka eta arazoetan bitartekotza egitea izango da. Eginkizun nagusia kontratua gauzatzen den bitartean sor daitezkeen jatorri psikosozialeko gatazka eta arazoetan bitartekotza egitea izango da. Eginkizun horretan, arazo edo gatazkaren zergatikoak diagnostikatuko ditu, horiei konponbidea emateko sistema bat diseinatuko du, kanpoko bitartekotza jarduerak egingo du... Baldintza Teknikoen Agiriaren **1.B klausulan** jasotakoaren arabera.
3. Koordinatzaile tekniko bat, laneko arriskuen prebentzioko goi mailako prestakuntza, esperientzia frogatua eta bere erakundean egikaritze maila

duena. Kontratua garatzen den bitartean gertatzen diren gorabeherak jakinarazteko, koordinatzeko eta konpontzeko arduraduna eta solaskidea izango da eta kontratuaren xede diren prestazioen jarduketak koordinatzeaz arduratuko da, Baldintza Teknikoen Agiriaren **1.B klausulan** jasotakoaren arabera.

Horrez gain, enpresa lizitatzailerik prebentzio zerbitzu gisa egiaztatuta egon beharko dute. Horiek horrela, lizitatzailerik, pertsona fisikoak zein juridikoak izanik, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lan administrazioak egiaztatu izana eta osasun administrazioaren onarpena lortu izana, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua (aurrerantzean PZE) onartzen duen urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan, berau garatzen duen 1997ko ekainaren 27ko Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren Aginduan eta urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua aldatzen duen urriaren 9ko 899/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.
- Behar bezala inskribatuta egotea, PZEaren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta, hala badagokio, prebentzio sistemaren auditoretza edo kanpoko ebaluazio jarduerak burutzeko pertsona edo erakunde espezializatu baimenduen eta kanpoko prebentzio zerbitzu gisa jarduteko egiaztatutako erakunde espezializatuen Erregistroa sortu eta arautzen duen otsailaren 5eko 26/2008 Dekretuaren arabera.
- Indarrean dagoen legeriaren arabera prebentzio zerbitzu diren aldetik izan behar duten beste edozein egiaztagiri izatea.

B) 2. LOTEA.- Osasunaren zaintzako espezialitateko prebentzio zerbitzua.

Lizitatzailerik guztiek egiaztatu beharko dute ondoren adierazitako kaudimen teknikoak edo profesionala daukatela:

- 2. lotearen xede direnen antzeko lanak egin izana. Ildo horretan, azkeneko hiru urteetan (2013, 2014 eta 2015), gutxienez, 2. lotearen xedea osatzen duten zerbitzuen antzekoei —izaieran eta zenbatekoan— dagozkien bi kontratu egin izana egiaztatu beharko dute.

Kaudimena ziurtatzeko, gainera, gutxienez ondoren adierazitako giza baliabideak **kontratua gauzatzeari atxikitzeko konpromisoa** hartu beharko dute lizitatzailerik:

1. Laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikari bat, osasunaren zaintzako espezialitatean (medikua), alor horretan gutxienez bost urteko esperientzia frogatua duena, Baldintza Teknikoen Agiriaren **eranskinean** jasotzen diren funtzioak eta zereginak betetzeko, Baldintza Teknikoen Agiriaren **1.B klausulan** xedatutakoaren arabera.
2. Enpresako OLT/EUD bat, alor horretan gutxienez bost urteko esperientzia frogatua duena.

3. Osasun koordinatzaile tekniko bat, laneko arriskuen prebentzioko goi mailako prestakuntza, esperientzia frogatua eta bere erakundean egikaritze maila duena. Kontratua garatzen den bitartean gertatzen diren gorabeherak jakinarazteko, koordinatzeko eta konpontzeko arduraduna eta solaskidea izango da eta kontratuaren xede diren prestazioen jarduketak koordinatzeaz arduratuko da, Baldintza Teknikoen Agiriaren **1.B klausulan** jasotakoaren arabera.

Gainera, enpresa lizitatzailerik jarduera horiek egiteko administrazio gaikuntza izan beharko dute, Eusko Jaurlaritzak jaulkia.

Bi loteei dagozkien baliabideak atxikitze konpromisoa funtsezko kontratu betebehartzat joko da SPKLTBren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hori ez betetzea, hortaz, kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, DONOSTIA KULTURAK eskatzen badu.

Suntsiaraztearen aukera moduan, enpresa kontratistak/kontratistek kontratuak gauzatzeari atxikitako taldea alde bakarretik aldatuz gero, DONOSTIA KULTURAK eskatu ahal izango du konprometitutako taldea berehala jartzeko edo bestela, edo kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoi ondoz ezinezkoa bada, prestakuntza edo esperientzia bereko giza baliabideekin ordezkatzeko. Langile horiek DONOSTIA KULTURAREN berariazko baimena izan beharko dute.

Eskatutako kaudimena eta/edo eskatutako baliabideak atxikitze konpromisoa egiaztatze, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa duten lizitatzailerik, haiekin edozein motatako lotura juridikoa dutela ere, notario aurrean sinatutako idazkia aurkeztu beharko dute (**VI. eranskinean** jasotako ereduaren arabera). Idazki horretan, kasuan kasuko enpresak/enpresek honako hau adieraziko du/dute: lizitatzailerik parte hartzen duen lizitazioaren baldintzak irispide osoan ezagutzen dituela/dituztela; eskatutako kaudimena duela/dutela (horren egiaztagiria aurkeztuko du/dute, **13. klausulan** aurreikusitako eran); eta, esleipendun suertatuz gero, lizitatzailerik horren eskura kontratuak gauzatzeko beharrezko baliabideak jartzeko asmo ezeztatzina duela/dutela, Kode Zibilarren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta (Administrazioak berariaz baimendu beharko du hura ordezkatzeko edo aldatzeko). Idazki hori aurkezteak berekin ekarriko du DONOSTIA KULTURAK konpromiso hori onartzea, baldin eta dagokion lizitatzailerik esleipendun suertatzen bada.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailerik baldintzarik gabe eta osorik onartzen dituela Agiri hau, Baldintza Teknikoen Agiria eta kontratuari lotutako gainerako dokumentazioa, inongo salbuespenik gabe.

Agiri hau eta Baldintza Teknikoen Agiria kontratatzailearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako web orri honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan ere aztertu ahal izango da (Erregina Erregentearen kalea, 8 - 1. solairua. 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara -udan 09:00etatik 13:30era-.

loteetarako eskaintzak aurkezten dituzten enpresa lizitatzailleek A gutun azal bakar bat aurkeztu ahal izango dute, dokumentazio hau bilduko duena:

1. Lizitatzaillearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren jarduteko gaitasuna frogatzeko dokumentuak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: eratzearen eskritura edo dokumentua, estatutuak edo fundazio egintza, jarduerak bete beharreko arauak jasotzen dituztenak, dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuak, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

- Europar Batasuneko estatuetako enpresaburu ez espainiarren jarduteko gaitasuna frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa, edo zinpeko deklarazioa edo ziurtagiria, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

- Gainerako enpresaburu atzerritarren kasuan, jarduteko gaitasuna frogatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen ordezkartza diplomatiko iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde esparruko bulego kontsularraren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna frogatzeko nortasun agiri nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da.

- Besteren izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek nortasun agiri nazionalaren kopia eta horretarako behar besteko ahalordea aurkeztuko dute. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuek elkartea eratzen dutenen izenak eta ezaugarriak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahaldun horrek kontratuen ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, enpresaburuek ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Dokumentu horien guztien jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiai aurkeztuko dira.

2. SPKLTBren 60. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen enpresa lizitatzaillearen erantzukizunpeko deklarazioa, **III. eranskineko** ereduaren arabera.

Deklarazio horretan jasoko da enpresa lizitatzailleak indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen erantzukizunpeko deklarazioa. Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen enpresa lizitatzailleak baldintza hori betetzen duela ziurtatu beharko du hamar egun balioduneko epean, DONOSTIA KULTURAK xede horrekin egiten dion errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Dokumentu horretan lizitatzaillearen deklarazioa sartu beharko da, lizitazio, esleipen eta gauzatze prozesuaren ondorio diren datu guztiei (esleipendun suertatuz gero) prozesua amaitu arte gardentasun instituzionala ematea borondatez onartzekoa.

3. Enpresa lizitatzaillearen kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren eta teknikoaren edo profesionalaren egiaztagiria, **12. klausulan** aurreikusitakoaren arabera.

- Dagokion lotearen xedea osatzen duten lanen antzeko lan nagusien zerrenda, azken hiru urteetan (2013, 2014 eta 2015) egindakoa, horien zenbatekoa, datak eta hartzailea/bezeroa, publikoa zein pribatua, jasoko dituen. Zerrendarekin batera hartzaile/bezero horiek jaulkitako ziurtagiria/ziurtagiriak aurkeztu beharko da/dira.

Bi loteetarako eskaintzak aurkeztzen dituzten enpresek, baldin eta A gutun azal bakarra aurkeztzen badute, 3. puntu honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute lote bakoitzerako.

4. **12. klausulan** adierazitako giza baliabideak kontratua gauzatzeari atxikitzeko konpromisoa.

Konpromiso hori funtsezko kontratu betebehartzat joko da SPKLTBren 223. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hortaz, betetzen ez bada, DONOSTIA KULTURAK kontratuak suntsiarazteko eskubidea izango du.

Bi loteetarako eskaintzak aurkeztzen dituzten enpresek, baldin eta A gutun azal bakarra aurkeztzen badute, 4. puntu honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute lote bakoitzerako.

5. **12. klausulan** lote bakoitzari dagokionez eskatutako gaikuntza izatea frogatzen duen dokumentazioa:

- 1. loteari dagokionez:

- Lizitatzaillea PZEaren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta, hala badagokio, prebentzio sistemaren auditoretza edo kanpoko ebaluazio jarduerak burutzeko pertsona edo erakunde espezializatu baimenduen eta kanpoko prebentzio zerbitzu gisa jarduteko egiaztatutako erakunde espezializatuen Erregistroa sortu eta arautzen duen otsailaren 5eko 26/2008 Dekretuaren arabera inskribatuta egotearen egiaztagiria.

- Indarrean dagoen legeriaren arabera lizitatzailleak, prebentzio zerbitzu den aldetik, izan behar duen beste edozein egiaztagiri izatearen egiaztagiria.

- 2. loteari dagokionez: lote horren xede diren jarduerak egiteko administrazio gaikuntza, Eusko Jaurlaritzak jaulkia.

Bi loteetarako eskaintzak aurkezten dituzten enpresek, baldin eta A gutun azal bakarra aurkezten badute, 5. puntu honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute lote bakoitzerako.

6. Hala badagokio, adierazpenen notario akta, lizitatzailleak eskatzen den kaudimena eta/edo gutxieneko baliabide jakin batzuk atxikitze konpromisoa egiaztatze, beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzeko asmoa duenean, **VI. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

7. Atzerriko enpresek berariazko deklarazioa aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuen ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, enpresa lizitatzailari legokiokkeen atzerriko jurisdikzio foruari berariaz uko egiten diotela adieraziko dute.

8. Jakinarazpenak hartzeko lehentasunezko bitartekoa izendatzea, Agiri honi **II. eranskin** gisa gehitutako ereduaren arabera.

9. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzeari buruzko erantzukizunpeko deklarazioa, **V. eranskineko** ereduaren arabera.

Oharrak:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala arautzen duen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda dauden enpresa lizitatzailleek, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak jaulkitako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, 1. atalean eskatutako dokumentazioaren orde. Izen ematearen ziurtagiriarekin batera, lizitatzailleak sinatutako erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko da, zeinaren arabera adieraziko baita dokumentuan islatutako inguruabarrak ez direla aldatu.
- (ii) DONOSTIA KULTURAK eskubidea du enpresa lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo horretarako behar den dokumentazio guztia eskatzeko.
- (iii) Atzerriko enpresek gaztelaniara edo, hala badagokio, euskarara ofizialki itzulita aurkeztuko dute dokumentazioa.

B gutun azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Enpresa lizitatzailleek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, lizitatuko duten **lote bakoitzerako gutun azal bereizian** (dokumentazio guztia DIN A4 formatuko orrietan aurkeztuko dute, alde bakar batetik idatzita, Arial 11 letrarekin eta leerroarte bakunean):

1. Enpresaren identifikazioa, antolakuntza, kontratuari atxikitzen dizkion instalazioak eta tresneria (zentroak eta espezialitatean egin ohi diren proba, neurketa, analisi eta ebaluazioetarako tresnak) **barne hartuko dituen memoria**. (5 orri alde batetik idatzita)

Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoa betetzeko, ohartarazten da kontratuak bete egin beharko dituztela indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

Testuinguru horretan, atal honetan aurreikusitako memorian kontratuen xede den jarduera egingo duten langileei aplikatzekoa izango den hitzarmen kolektiboa adieraziko dute lizitatzailleek, baldin eta esleipendun suertatzen badira.

2. Jarduera DONOSTIA KULTURAN garatzeko **laneko plana**, garatu beharreko jardueren urteko kronograma jasoko duena. Laneko plan horrek epeak eta metodologia identifikatu beharko ditu, osatuko luketen edo bilduta geratuko liratekeen jarduerak banakatuta eta adierazita. (10 orri alde batetik idatzita)

Halaber, enpresak kontratua gauzatzeari atxikiko dizkion langile propioen funtzioak eta horiek egiteko modua adierazi beharko ditu, baita enpresaren gainerako antolakuntzarekin duten harremana ere. Bereziki, enpresak bere langileen gaineko maila guztietako enpresa eta zuzendaritza erantzukizunak nola beteko dituen adierazi beharko du. Hori guztia, gainera, legez kontrako langile lagapenari bidea eman diezaioketen egintzak edo egoerak saihesteko funtsezko xedea kontuan hartuta.

3. Langileen prestakuntza plana:

- 1. *lotea*:
 - prebentzioan 4 urterako, urteko xehetasunarekin. (5 orri alde batetik idatzita)
 - arrisku psikosozialetan 4 urterako, urteko xehetasunarekin. (5 orri alde batetik idatzita)
- 2. *lotea*:
 - prebentzioan 4 urterako, urteko xehetasunarekin; zehazki, lehen laguntzetako ikastaroak (5 orri alde batetik idatzita)

4. **12. klausulan** eskatutako gutxienekoaz gainera, kontratuari atxikiko zaizkion **giza baliabideen zerrenda (eta jarraitutasun plana)**, eta haien parte hartzearen eta zerbitzurako dedikazioaren benetako irispidearen konprezioa eta konpromisoa.

Lizitazio honetan aintzat hartzen denez, lote bakoitza gauzatzeari atxikitako langileen kalitateak eragin adierazgarria izan dezake kontratua gauzatzean, zerbitzu intelektualei eta aholkularitzakoei buruzko kontratuak dira eta.

Testuinguru horretan, honako hau eskaini ahal izango da:

- 1. lotea:

- **12. klausulan** eskatutakoaren arabera gutxienez atxikitako langileei dagokienez (koordinatzaile teknikoa, laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikaria, psikologiako tituludun laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikaria), Baldintza Teknikoen Agiriaren **1.B klausulan** aurreikusitako gutxienezko gainerako betekizunak. (6 orri alde batetik idatzita)
- Kontratua gauzatzeari **12. klausulan** eskatutako gutxienezkoak baino giza baliabide gehiago atxikitzea. (2 orri alde batetik idatzita)

Bi konpromiso horiek hurrengo klausulan aurreikusitako terminoetan baloratu ahal izango dira.

- 2. lotea:

- **12. klausulan** eskatutakoaren arabera gutxienez atxikitako langileei dagokienez (koordinatzaile teknikoa, laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikaria, OLT/EUD), Baldintza Teknikoen Agiriaren **1.B klausulan** aurreikusitako gutxienezko gainerako betekizunak. (6 orri alde batetik idatzita)
- Kontratua gauzatzeari **12. klausulan** eskatutako gutxienezkoak baino giza baliabide gehiago atxikitzea. (2 orri alde batetik idatzita)

Bi konpromiso horiek hurrengo klausulan aurreikusitako terminoetan baloratu ahal izango dira.

Kontratuei atxikita dauden eta jendearekin nolabaiteko harremana duten langileek gaitasuna izan beharko dute, DONOSTIA KULTURAREN irizpidearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan komunikatzeko.

DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo horretarako behar den dokumentazio guztia eskatzeko.

Zerbitzuaren **jarraitutasun plana**. Bertan adieraziko dira, bereziki, lizitatzailleak kontratuari atxikiko dizkion giza baliabideak, **12. klausulan** xedatutakoaren arabera kontratuari atxikitako pertsonak ordeztu edo txandakatu beharko balira ere.

- **1. lotea:** Koordinatzaile teknikoa, laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikaria, psikologiako tituludun laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikaria. (6 orri alde batetik idatzita)
- **2. lotea:** Koordinatzaile teknikoa, laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikaria, OLT/EUD. (4 orri alde batetik idatzita)

Jendearekin nolabaiteko harremana duten langileek gaitasuna izan beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan komunikatzeko.

DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo horretarako behar den dokumentazio guztia eskatzeko.

5. Baloratu beharreko beste alderdi tekniko batzuk: lan kalitatearen konpromisoa.

Lizitatzailleak adieraziko du kontratuak gauzatuko dituen plantillaren zein ehunekok duen kontratu mugagabea (orri 1 alde batetik idatzita), eta kontratua gauzatuko duten langileentzako prestakuntza ekintzen proposamena aurkeztuko du.

Planteatutako egituraz bestelakoa duen memoria teknikorik ez da onartuko/aztertuko.

Gutun azal honetako dokumentazioa **formatu digitalean** aurkeztuko da; gainera, dokumentazio horren kopia bat paperean aurkeztu ahal izango da. DONOSTIA KULTURAK eskubidea du enpresa lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo horretarako behar den dokumentazio guztia eskatzeko.

C gutun azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Lizitatzailleek proposamen ekonomikoa aurkeztu beharko dute, **lizitatuko duten lote bakoitzerako gutun azal bereizian**, Agiri honi **IV. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren arabera.

DONOSTIA KULTURAK, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuen indarraldian, A, B eta C gutun azaletan aurkeztutako dokumentuen edukiaren egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du, baita Baldintza Teknikoen Agirian eskatutakoena ere. Enpresak aurkeztutako datuetan edo inguruabarretan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua/kontratuak baliogabea/baliogabeak izan daiteke/daitezke, enpresa esleipendunari/esleipendunei egotz dakizkiokeen/dakizkiekeen arrazoien ondorioz kontratua ez betetzeagatik.

Behin kontratuak esleitu eta urtebeteko epea igarotzen denean, DONOSTIA KULTURAK lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta lizitatzailleek ez badute jaso.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Lote bakoitzari dagozkion balorazio irizpideak, garrantzi handienekotik txikienera eta dagokien haztapenarekin adierazita, honako hauek izango dira:

Eskaintza teknikoa: gehienez ere 70 puntu

Gehieneko puntuazioa honela banakatuko da:

1. Enpresaren identifikazioa, antolakuntza, kontratuari atxikitzen dizkion instalazioen eta tresneriaren egokitasuna barne hartuko dituen **memoria**.

- 1. *loterako* lizitatuz gero (gehienez ere 12 puntu).
- 2. *loterako* lizitatuz gero (gehienez ere 20 puntu).

2. Jarduera DONOSTIA KULTURAN garatzeko **laneko planaren** egokitasuna (garatu beharreko jardueren urteko kronograma jasoko du).

- 1. *loterako* lizitatuz gero (gehienez ere 12 puntu).
- 2. *loterako* lizitatuz gero (gehienez ere 13 puntu).

3. **DONOSTIA KULTURAKO langileen prestakuntza plana:**

1. *loterako* lizitatuz gero:

- prebentzioan (gehienez ere 3 puntu)
- arrisku psikosozialetan (gehienez ere 3 puntu).

2. *loterako* lizitatuz gero:

- prebentzioan. Lehen laguntzetako ikastaroak (gehienez ere 6 puntu).

4. Kontratuari atxikitako **giza baliabideak eta jarraitutasun plana:**

- 1. *loterako* lizitatuz gero: (gehienez ere 35 puntu).
- 2. *loterako* lizitatuz gero: (gehienez ere 25 puntu).

Agiri honen **12. klausulan** eskatutako gutxienekoaz gainerik kontratuari atxikitako giza baliabideen kualifikazioa eta egokitasuna baloratuko da, baita atxikitzeko konpromisoan sartutako gutxieneko giza baliabideen kualifikazioa eta egokitasuna Agiri honen **12. klausulan** eskatutakoa baino handiagoa den ere.

Jarraitutasun plana ere baloratuko da, baita **12. klausulan** xedatutakoaren arabera kontratuari atxikitako pertsonak ordeztu edo txandakatu beharko balira ere lizitatzailerak kontratuari atxikitako dizkion giza baliabideen kualifikazioa eta egokitasuna ere.

Kualifikazio eta egokitasun horretan titulazioak, espezialitateak eta esperientzia kontuan hartuko dira.

5. **Beste alderdi tekniko batzuk:** lan kalitatearen konpromisoak.

- Bi loteetarako, 3 puntu emango zaizkio kontratua gauzatuko duen plantillan kontratu mugagabeko langile gehien sartzeko konpromisoa hartzen duen lizitatzailerari, eta gainerako lizitatzailerak puntuazio proportzionala lortuko dute.

- Puntuak emango zaizkio kontratua gauzatuko duten langileentzako prestakuntza ekintzak proposatzen dituen lizitatzailari:
- 1. *loterako* lizitatuz gero: (gehienez ere 2 puntu).
- 2. *loterako* lizitatuz gero: (gehienez ere 3 puntu).

Proposamen ekonomikoa: gehienez ere 30 puntu

Lote bakoitzari dagokionez, puntuazioa proportzionalki ematen da honako balio hauen artean:

1. Lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua.
2. Honako hauen arteko kopururik txikiena:
 - a) Eskaintzarik txikiena
 - b) Lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua ken % 20.
 - c) Eskaintzaren batez besteko prezioa ken % 10.

Honela baloratuko da: Agiri honen **7. klausulan** finkatutako lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontuaren baliokidea den prezioa eskaintzen duenak 0 puntu lortuko du eta gainerakoei honako formula matematiko hau aplikatuko zaie:

$$P_{tn} = \frac{(Pl - On)}{(Pl - On)} \times P_{to}$$

(izanik Pl = Lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua; Pto = Gehieneko puntuazioa; Ol = Preziarik txikiena 2. atalaren arabera; On = Lizitatzailer bakoitzaren eskaintza ekonomikoren prezioa; Ptn = Lizitatzailer bakoitzak lortutako puntuazioa).

Neurritz kanpokotzat edo ezohikotzat jo daitekeen proposamen bat antzemanetz gero, eskaintza aurkeztu duen lizitatzailari entzunaldia eman beharko zaio, eskaintzaren balorazioa justifika dezan eta baldintzak zehatz ditzan.

Ondorio horietarako, eskaintza bat neurritz kanpokotzat edo ezohikotzat jo ahal izango da, baldin eta proposamen guztien batez besteko aritmetikoa baino 25 unitate txikiagoa bada ehunekoetan.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

- DONOSTIA KULTURAKO Kontratazio Ataleko ordezkari bat.
- DONOSTIA KULTURAKO Baliabideak Administrazeko eta Kudeatzeko Arloko zuzendari teknikoa.
- DONOSTIA KULTURAKO arkitekto teknikoa.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak A gutun azaleko ("Kontratatze gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, legezko epean eta eran aurkeztua. Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitekeen akatsik edo omisiorik antzemanaz gero, hiru egun balioduneko epea eman ahal izango du, enpresa lizitatzailerak haiek zuzen ditzan.

Ondoren lote bakoitzeko B gutun azala irekiko da, proposamen teknikoa gordetzen duena, dagokion azterketa eta balorazioa egiteko.

Lote bakoitzeko C gutun azalean jasotako proposamen ekonomikoen irekiera jendaurrean egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaizkie onartutako enpresa lizitatzailerak guztiei, **II. eranskinaren** arabera jakinarazpenak hartzeko lehentasunez aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Inguruabar horiek, halaber, kontratatzailearen profilean (www.donostiakultura.com) argitaratuko dira 48 ordu lehenago.

Lote bakoitzeko proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren enpresa lizitatzailerak, betiere haietakoren batek horrela egiteko eskatzen badu.

Lote bakoitzeko proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitzean, proposamenak aztertu eta baloratzen hasiko dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO aurrerantzean) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoietakoren batean sartuta dauden proposamenak. Halaber, lote bakoitzean aurkeztutako proposamenen zerrenda Kontratazio Organoari igorriko dio, handienetik txikienera sailkatuak, **14. klausulan** ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta, eta horietako bakoitzean ekonomikoki onuragarriena den eskaintza identifikatuko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamena txosten juridikoaren mende jarriko da.

Ebaluazio Batzordeak lote bakoitzean proposamen ekonomiko onuragarriena identifikatzeak ez du inongo eskubiderik sortzen enpresaren/enpresen alde.

17. KONTRATUAK ESLEITZEA

Lote bakoitzean esleipenerako hautatutako enpresa lizitatzailerak aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Bestela, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoiak beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko sailkatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio lote bakoitzean eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen enpresa lizitatzailerari, eta lizitatzailerak hamar egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duen dokumentazioa.

Esleipendunak EJZn, dagokion kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela frogatu beharko du. Horretarako, alta agiria aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldiari baldin badagokio, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Nolanahi ere, zerga horren izen ematean baja hartu ez izana adieraziko duen erantzukizunpeko deklarazioa gaineratu beharko da.

- Kontratuei atxikitzeko hitz emandako giza baliabideak benetan erabilgarri izatearen egiaztatgiriak.

Kontratuak gauzatzeari atxikitzeko hitz emandako giza baliabideei dagokienez, bai **12. klausulan** eskatutako gutxienezkoei, bai **13. klausulan** xedatutakoaren arabera giza baliabide gehigarriei dagokienez, hautatutako lizitatzailerak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratuak gauzatzeari atxikitako taldeko kide guztien izenak, honako hauek bilduko dituzten curriculum vitaearen fitxekin batera:
 - o Titulu akademiko ofiziala.
 - o Dagokion esparruko esperientzia.
 - o Hizkuntzei buruz eskatutako baldintzak betetzea, Baldintza Teknikoen Agirian adierazitako terminoetan.
- Giza baliabide horiek guztiak benetan izatearen egiaztatgiriak.

DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzailerak aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo horretarako behar den dokumentazio guztia eskatzeko.

Ohartarazten da, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (aurrerantzean DBLO) aurreikusitakoaren arabera, eta giza baliabideei buruzko aipatutako dokumentazioan bildutako informazioaren izaera kontuan izanik, (i) hori biltzea eta erabiltzea izaera pertsonaleko datuen tratamendua izango dela, hautatutako enpresa lizitatzailerak/lizitatzailerak tratamenduaren arduradun gisa eginga; eta (ii) DONOSTIA KULTURARI proposamenaren osagai gisa entregatzea hautatutako enpresa lizitatzailerak/lizitatzailerak egindako datu lagapena izango dela, lagatzaile gisa eginga.

Ondorio horietarako, hautatutako enpresa lizitatzailerak/lizitatzailerak bete egin beharko ditu/dituzte DBLOn xedatutakotik ondorioztatzen zaizkion/zaizkien betebeharrak, aurreko paragrafoan aipatutako datuen tratamenduari eta lagapenari dagokienez. Bereziki, tratamenduaren arduradun gisa bete beharko dituen/dituzten bestelako betebeharrak ezertan galarazi gabe, hautatutako

enpresa lizitatzailleak/lizitatzailleek DBLOren 11. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko du/dute eta, bere erantzukizunpean soilik lortu arestian aipatutako datuen lagapen hori gaituko duen interesdunen baimen informatua. Alderdi hori behar bezala egiaztatu beharko du/dute DONOSTIA KULTURAREN aurrean horretarako errekerimendua egiten diotenean/dietenean.

- Agiri honen **11. klausulan** aurreikusitako behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.
- Lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeak sortutako gastuak ordaindu izanaren egiaztagiria. Esleipendun bat baino gehiago egonez gero, faktura proportzionalki banatuko dute, bakoitzari esleitutako loteen balio zenbatetsiaren arabera.
- Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkartearen lege sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko da eta behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua/kontratuak iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- Aseguru erakundearen ziurtagiria, **VII. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

Eskatutako guztia epearen barruan betetzen ez bada, enpresa lizitatzailleak/lizitatzailleek bere eskaintza/eskaintzak atzera bota d(it)uela/d(it)u(z)tela ulertuko da. Kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio/zaie hurrengo enpresa lizitatzailari/lizitatzailerei, eskaintzak lote bakoitzean sailkatu diren ordenaren arabera.

Kontratazio Organoak kontratuaren/kontratuen esleipena erabakiko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eta, gehienez ere, proposamenak irekitzen direnetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Lote bakoitzaren esleipena ebazpen arrazoituaren bidez erabakiko du erakunde kontratatzaile bakoitzaren Kontratazio Organoak, eta lizitatzailerei jakinaraziko zaie, Agiri honi **II. eranskin** gisa gehitutako ereduaren arabera adierazitako bitartekoaren bidez; aldi berean, DONOSTIA KULTURAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUAK BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratuak formalizatzean burutuko dira.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, gehienez ere 15 egun balioduneko epearen barruan, esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Dokumentazioa baliagarria da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Enpresa esleipendunak/esleipendunek, halere, kontratuak eskritura publiko bilakatzeko eskatu ahal izango du/dute; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak.

Eduki bereko behar beste kontratu izenpetuko dira, kontratuaren xedea osatzen duten loteen esleipendun suertatu den/diren enpresaren/enpresen arabera, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN.

Kontratuen formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Argitalpena kontratua esleitzen denetik berrogeita zortzi egun naturaleko epean egingo da, gehienez ere.

Enpresa esleipendunaren kontura izango dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontratuen formalizazioaren iragarkiak argitaratzeak sortutako gastuak. Enpresa esleipendun bat baino gehiago egonez gero, faktura proportzionalki banatuko dute, bakoitzari esleitutako loteen balio zenbatetsiaren arabera.

Lote bakoitzaren enpresa esleipendunari egotz dakizkiokeen kausen ondorioz, kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, DONOSTIA KULTURAK lote horren hurrengo lizitatzailerari edo lizitatzailerari errekerimendua egin ahal izango die (eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera) Agiri honen **17. klausulan** eskatutako dokumentazioa aurkez dezaten, eta hamar egun balioduneko epea emango die horretarako.

19. KONTRATUEN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduradun bat izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuen arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, DONOSTIA KULTURARI lotutakoa edo kanpokoa.

Enpresa esleipendunak nahitaez beteko ditu kontratuen arduradunak ematen dituen jarraibideak. Jarraibide horiek zuzenean jakinaraziko dizkio lote bakoitzaren koordinatzaile teknikoari.

20. KONTRATUAK GAUZATZEA

Kontratuak honako baldintza hauen arabera gauzatuko dira:

- Kontratuak bete egin beharko ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

Testuinguru horretan, Agiri honen **13. klausulan** eskatutako memorian kontratuen xede den jardura egingo duten langileei aplikatzekoa izango den hitzarmen kolektiboa adieraziko dute lizitatzailerak, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Enpresa esleipendunak kontratuaren xede den jardura egiten duten langileei aplikatzekotzat jotzen duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen ebazpenean sartuko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Horrez gain, esleipendunak eskatzen dioten informazio guztia eman beharko du kontratua esleitu ondoren langile horiei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz.

Kontratu bakoitzaren esleipendunak, kontratua gauzatzen den bitartean, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ezin da inoiz hori baino txikiagoa izan.

Atal honetan xedatutakoa gauatzeko baldintza berezitzat eta funtsezko betebehartzat joko da SPKLTBren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hortaz, betetzen ez bada, DONOSTIA KULTURAK kontratua suntsiarazteko eskubidea izango du.

- Kontratuak enpresa esleipendunaren arriskuz eta menturaz gauzatuko dira.
- Kontratuak haien termino eta baldintzen arabera, Ekonomia eta Administrazio Klausulen Agiri honen arabera, Baldintza Teknikoen Agiriaren arabera eta enpresa esleipendunak/esleipendunek aurkeztutako eskaintzaren/eskaintzen arabera gauzatuko dira, DONOSTIA KULTURAK ematen dituen argibideei jarraiki.
- DONOSTIA KULTURAK kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar den bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen dituen kanpoko laguntzak jaso ahal izango ditu, kontratu betebeharrak behar bezala betetzen direla eta lanak kalitate maila egokiarekin egiten direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko.

- Enpresa esleipendunak/esleipendunek DONOSTIA KULTURAK zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion/dizkien datu guztiak aurkeztuko ditu/dituzte, behar den laguntza guztia eskainiko du/dute, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du/dute.
- Dena den, DONOSTIA KULTURAK edozein ez betetze edo eragozpen hautematen badu, zuzenean jakinaraziko zerbitzuaren koordinatzaileari, horri baitagozkio, azken batean, zerbitzu prestazioa egiten duten langileak antolatzeko, gainbegiratzeko edo, hala badagokio, zigortzeko ahalmenak.
- Enpresa esleipendunak/esleipendunek ezin izango du/dute oztoporik jarri DONOSTIA KULTURAK egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.
- Langile guztiak kontratistaren/kontratisten mendekoak izango dira. Harenak/haienak izango dira enpresaburu izateari dagozkion eskubideak eta betebeharrak, eta ezin izango zaio DONOSTIA KULTURARI erreklamaziorik egin lan harreman horien edo gainerako betebeharren ondorioz.

Enpresa esleipenduna/esleipendunak izango da/dira arduradun bakarra/bakarrak prestazioa gauzatzen lan egiten duten langileekin erlacionatutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). DONOSTIA KULTURAK ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, enpresa esleipendunak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Era berean, prestazioa gauzatzean gertatutako ezbeharren ondoriozko erantzukizunak bakarrik hartuko ditu/dituzte bere gain enpresa esleipendunak/esleipendunak.

- Enpresa kontratistak/kontralistek DBLOn eta berau garatzen duen araudian aurreikusitakotik sortzen diren betebeharrak bete beharko ditu/dituzte, kontratua indarrean dagoen bitartean bere jardueren esparruan bere kontura eta bere erabakiz egiten duen/duten datu pertsonalen edozein tratamenduren ondorioz, tratamendu horren arduradun den/diren aldetik. Hori guztia Agiri honen **22. klausulan** berariaz ezarritakoa gorabehera.
- Enpresa esleipendunak/esleipendunak, nolanahi ere, lana behar bezala egiteko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko osagarriak jarri beharko ditu/dituzte, eta bere betebeharrak betetzeko behar diren langileak kontratatu. Kasu horretan, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu/dituzte bere ardurapeko langileekin.

21. FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira funtsezko kontratu betebeharrak:

- Kontratuak zorrotz betetzea klausuletan eta aplikatzekoak diren Agirietan ezarritakoari lotuta.
- 1. loteari dagokionez, enpresa kontratistak lote horren xede diren zerbitzuak egin beharko ditu (psikosoziologia aplikatuko zerbitzua izan ezik) gutxienez urtean 468 orduz (astean 9 ordu, 2 lanalditan banatuta: 5 ordu egun batean eta 4 ordu bigarrenetan, goizez edo DONOSTIA KULTURAK zehazten duen ordu banaketaren arabera). Eta psikosoziologia aplikatuko zerbitzuak gutxienez urtean 30 orduz egin beharko ditu.

Gainera, kontratua formalizatu ondoren ikusitako beharrak direla eta, DONOSTIA KULTURAK, egokitzen jotzen badu, psikosoziologia aplikatuko zerbitzuan aurreko paragrafoan adierazitako gutxienezko 30 orduak baino gehiago egiteko eskatu ahal izango dio kontratistari. Ordu horiek Agiri honen 7. klausularen arabera zehaztutako prezioan egin beharko ditu kontratistak.

- **1. loterako**, ordenagailu pertsonal eramangarri bat laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikarien eskueran jartzea, DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan zerbitzuak egiteko, eta Baldintza Teknikoen Agiriaren **1. klausulan** eskatutako gainerako baliabide materialak ere eskueran jartzea.

- Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak ordaintzea.
- Lan esparruan indarrean dauden lege xedapenak betetzea (hitzarmen kolektiboa, soldatak, eta abar) eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eta laneko segurtasun eta osasunekoak betetzea; DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik izango betebeharrak hori urratzeagatik. Kontratuak behar den bezala garatu eta betetzeko DONOSTIA KULTURAK beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak egitea —adibidez, laneko bileretara edo bilera informatiboetara joatea—, ordainketa gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe. Betebeharrak hori bermealdiak irauten duen bitartean edo kontratuak amaitu arte mantenduko da, hala badagokio.
- Kontratatutak eta zerbitzua egiten duten pertsonen zerbitzuak egiten dituzten zentro bakoitzeko larrialdietako planaren jarraibideak eta DONOSTIA KULTURAK laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan ematen dizkien jarraibide guztiak betetzea.
- Langileei agindu guztiak, lana egiteko irizpideak eta gidalerroak ematea. DONOSTIA KULTURAK ez du inongo zerikusirik lan harreman horiekin eta ez du, inondik ere, horietan eraginik izango. Enpresa kontratatari/kontratistek bakarrik dagokio/dagokie, halaber, langileen lan ordutegia, haiek izan litzaketen ordutegi lizentziak edo baimenak edo enplegatzailearen ahalmenen beste edozein adierazpen zaintzea. Dena den, kontratatari/kontratatisten erantzukizun eskusiboa da, Agirietan ezarritako moduan, zerbitzua behar den bezala estalita geratzeko dela ziurtatzea.
- Langile guztiek behar bezala kontratatuta egon beharko dute, eta alta emanda Gizarte Segurantzaren kontratatariaren kontura soilik; eta ez da inolako harreman juridikorik izango langile horien eta DONOSTIA KULTURAREN artean, ez kontratuen indarraldian, ez beste inoiz.

DONOSTIA KULTURAK edozein unetan eska diezaioke esleipendunari lan kontratuaren kopia eta/edo Gizarte Segurantzako afiliazioaren kopia aurkezteko.

Langile horiek ez dute lan harremanik ez beste inolakorik izango DONOSTIA KULTURAREKIN eta berau ez da subrogatuko kontratatariaren eta haren langileen arteko kontratu harremanetan.

- Eskaintzan konpromisopean hartutako giza baliabide eta bitarteko material guztiak kontratuei atxikitzea.
- Langileak ordezkatzeko dagokien lana behar bezalako ardura eta eraginkortasunez egiten ez badute, behar adinako gaitasuna ez badute, zerbitzuak egitean behar besteko ardura jartzen ez badute edo kontratuak behar bezala garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. DONOSTIA KULTURAK eskaera egin eta gehienez ere 72 orduko epean egingo dira ordezkapenak.

- Langileak ordezkatzeari gaixotasun, opor, baimen, istripu eta abarren ondorioz izaten diren bajak estaltzeko, betiere kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean, jarraituan eta uniformean egingo direla ziurtatuta.
- Kontratuen indarraldiak eta bermealdiak irauten duen bitartean, aseguru poliza bat izenpetzea eta mantentzea, Agiri honen **24. klausulan** aurreikusitako moduan.
- Jendearekin nolabaiteko harremana duten langileek gaitasuna izan beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan komunikatzeko.
- Langileekin zuzenean erlazionatutako edozein jarduera hasi aurretik, DONOSTIA KULTURAK kontratuen solaskide izendatzen duenari jakinaraztea, 48 ordu lehenago, eta jakinarazpenean honako datu hauek adieraztea: egin beharreko jardura zehatza, zein zentro edo sailetan egingo den, zein langile egongo diren inplikaturik, jarduketaren xedea zein den, noiz egingo den eta gutxi gorabehera zenbat iraungo duen.
- Kontratatutako garatutako prebentzio jardueraren emaitzazko txostenak Baldintza Teknikoen Agiriaren **4. klausulan** adierazitako euskarrian eta epean entregatzea. Dokumentazio hori euskaraz eta gaztelaniaz entregatu behar da.
- **1. loterako**, prebentzio alorreko jarduketaren urteko programa egitea DONOSTIA KULTURAREKIN koordinatuta, eta programa horren jarraipena egitea, Baldintza Teknikoen Agiriaren **I. eranskineko** terminoetan.
2. loterako, osasunaren zaintzako jarduketaren urteko programa egitea DONOSTIA KULTURAREKIN koordinatuta, eta programa horren jarraipena egitea, Baldintza Teknikoen Agiriaren **II. eranskineko** terminoetan.
- Kontratuari atxikitako laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikaria eta osasunaren zaintzako espezialitateko laneko arriskuen prebentzioko goi mailako teknikaria, DONOSTIA KULTURAK eskatuta, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkuretarik eta DONOSTIA KULTURAK deitutako lan bilera guztietara joatea.
- Laneko ikuskapenetara joatea.
- **1. lotearen** kasuan, Laneko Arriskuen Prebentziorako Planaren jarraipena egitea eta hura ezartzen laguntzea, eta laneko arriskuen prebentzioa DONOSTIA KULTURAREN kudeaketa sistema orokorrean integratzeari eraginkortasuna baloratzea, itundutako jarduerari dagokienez.
- Urtean behin egitea urte horretan garatutako jarduketak barne hartuko dituen memoria.

22. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen xede diren zerbitzuak egiteko, horien edukia kontuan izanik, enpresa kontratatutako/kontratatutako DONOSTIA KULTURAREN titulartasuneko "Langileak

eta nominak" izeneko fitxategiari gehitutako izaera pertsonaleko datuak eskuratu beharko ditu. Datuak eskuratzeko sarbidea lizitazio honen xede diren zerbitzuak egitearekin zerikusia duten DONOSTIA KULTURAKO langileen zerrendara eta horiek identifikatzeko datuetara mugatuko da.

Testuinguru horretan, enpresa kontratistak/kontralistek nahitaez bete beharko du/dute DBLOn xedatutakoa (bereziki 9., 10. eta 12. artikuluetan adierazitakoa), DBLO garatzeko erregelamendua (aurrerantzean DBLOE) onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa eta arau horiek garatzeko gainerako xedapenetan ezarritakoa.

Horrela, eta DBLOk hala ezartzen duelako, enpresa kontratistak/kontralistek, tratamenduaren arduradun denez/direnez, tratamenduaren erantzule izango den DONOSTIA KULTURAREKIN izenpetu beharko du/dute datuak eskuratzeko dagokion/dagokien kontratua edo kontratuak, DBLOren 12. artikuluan eta DBLOEren 20. artikuluan zehazten diren edukiarekin eta irispidearekin.

Alderdien arteko zerbitzu prestazioaren kontratua/kontratuak sinatzen den/diren aldi berean izenpetu beharko da/dira datuak eskuratzeko kontratu hori/horiek.

Dena den, eta datuak eskuratzeko kontratuan/kontratuetan horri buruz ezartzen dena gorabehera, enpresa kontratistak/kontralistek bere gain hartzen du/dute aurreikuspen hauek betetzeko betebeharra:

- DBLOn, DBLOEn eta kontratua esleitzen den egunean indarrean dauden edo haren indarraldian indarrean egon daitezkeen datuak babesteko gainerako arauetan xedatutakoa beteko du/dute.
- Dagozkion segurtasun neurriak hartuko ditu/dituzte, DBLOEn edo etorkizunean horren ordezt ematen diren arauetan aurreikusitakoaren arabera.
- DONOSTIA KULTURAK eskatzen dionean/dienean, DONOSTIA KULTURAREN kontura tratatutako datuen eta horrek emandako dokumentazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna ziurtatzeko hartutako neurriak deskribatzeko memoria aurkeztuko du/dute.
- DONOSTIA KULTURARI jakinaraziko dio/diote nor den segurtasun neurri horiek praktikan jartzeko eta ikuskatzeko zuzeneko erantzukizuna duen pertsona (edo pertsonak).
- Datuak babesteko indarrean dagoen araudiaren ondorio diren betebeharrei buruzko prestakuntza eta informazioa emango die/diete langileei.
- Bai enpresa kontratistak/kontralistek bai lizitazio honen xede diren zerbitzuen prestazioan esku hartzen duten langileek sekretu profesionala gorde beharko dute kontratuaren indarraldian eskuratzen edo ezagutzen dituzten datu, dokumentu eta gaiak dagokienez, eta haiek gorde egin beharko dituzte.

Datuak eskuratzeko adierazitako egoera alde batera utzita, enpresa kontratistak/kontralistek kanpoko prebentzio zerbitzuaren funtzioak betez eta DONOSTIA KULTURAKO langileen osasunaren zaintzaren esparruan egiten duen/duten edozein datu tratamendu (esate baterako, azterketa eta proba

medikoak edo langile horien osasunari buruzko datuen tratamendua ekar dezakeen beste edozein jarduketa) enpresa kontratistak/kontratistek tratamendu horren arduradun gisa egindakotzat joko da.

Horrenbestez, enpresa kontratistak/kontratistek nahitaez bete beharko ditu/dituzte, bere erantzukizunpean soilik, DBLOn, DBLOEn eta bere jarduerari aplikatzekoak diren izaera pertsonaleko datuak babesteko gainerako araudian horri buruz ezarritako betebeharrak (besteak beste, laburbilduz, behar den bezala bete beharko ditu/dituzte interesdunaren informazioari eta baimenari buruzko betebeharrak, datu horien tratamenduaren arduradun dela/direla jasoarazita, eta DBLOEn ezarritako segurtasun neurriak aplikatuko ditu/dituzte, tratamenduaren xede diren datuen izaera kontuan hartuta).

23. KONFIDENTZIALITASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA

Esleipenaren publizitateari eta enpresa lizitatzaileri eman beharreko informazioari dagokionez Agiri honetan xedatzen denaren kalterik gabe, DONOSTIA KULTURAK ezin izango du zabaldu enpresa lizitatzailerek konfidentzialtzat izendatutako informazioa; bereziki, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusia duenean.

Enpresa kontratistak, bere aldetik, kontratuak gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, baita Agirietan izaera hori ematen zaion informazioa eta berez konfidentziala dena ere.

Konfidentzialtasuna gordetzeko eginbehar hori mugarik gabe mantenduko da.

Gainera, DBLOn aurreikusitakoaren arabera, DONOSTIA KULTURAREN kontura izaera pertsonaleko datuen tratamenduan parte hartzearen ondorioz, enpresak kontratistak eta bere langileek nahitaez bete beharko dute datu horien sekretu profesionala gordetzeko eginbeharra.

24. ASEGURUAK

1. Enpresa esleipendunaren ardurapekoak izango dira kontratuak gauzatzean eragindako kalte eta galera guztiak, haien izaera eta bolumena edozein delarik ere.

Kontratuetan ezarritakoa gorabehera, enpresa esleipendunak/esleipendunek jarraian adierazitako poliza kontratatuko du/dute bere kontura, kontratuak irauten duen bitartean izan daitezkeen gertaerak estaltzeko:

- a) Erantzukizun zibileko aseguruak, kontratua gauzatzean hirugarren pertsonen eta horien ondasunen gainean eragindako kalte eta galeren ondoriozko erantzukizuna estaltzeko.
- b) Aseguru horrek gutxienez ustiapen bermea edo berme orokorra, patronala eta defentsa eta finantzen bermea barne hartuko ditu.
- c) Aseguru horren bermeen kalte-ordainetarako muga ez da 1.500.000 euro baino gutxiago izango.

- d) Esleipendunak kalteak eragiten baditu DONOSTIA KULTURAREN edo bere ondasun edo langileen gainean, polizan kalte-ordaina jasoko duten hirugarrenen multzoan sartuko dira. Kalteak beste edozein hirugarren bati, DONOSTIA KULTURARI edo bere ondasun edo langileei eragiten bazaizkie, aseguratzat joko dira guztiak erantzukizun zibileko polizaren barruan.

Edonola ere, enpresa esleipendunaren/esleipendunen kontura izango dira aseguru bakoitzaren frankizien zenbatekoa eta ezbeharren zenbatekoa, aseguru polizan ezarritako mugak gainditzen dituen kopuruan. Era berean, bere kontura izango dira polizak estaltzen ez dituen hirugarrenentzako kalte-ordainak eta kalteak.

Enpresa esleipendunak/esleipendunek, kontratuak sinatu aurretik, erantzukizun zibilaren aseguratzalearen ziurtagiria aurkeztuko du/dute, **VII. eranskinean** jasotako "Aseguru erakundearen ziurtagiria" izeneko ereduaren arabera.

2. Aipatutako aseguruen kontratazioak ez ditu mugatuko enpresa esleipendunak/esleipendunek gainerako kontratu zehaztapenen arabera bere gain hartu dituen/dituzten betebeharrak eta erantzukizunak. Kontratatzalearen erantzukizun primarioa eta zuzena ere ezingo da murriztu, arindu edo aseguratzaleen baldintzetara edo jarduketara subrogatu.

3. Kontratuek irauten duten bitartean, DONOSTIA KULTURAK esleipendunari/esleipendunei eska diezaioke/dieziaieke lehen aipatutako aseguruen dokumentazioa aurkezteko, edo polizen kopia entregatzeko. Halaber, primen ordainketa egunean duela/dutela ziurtatzeko eska diezaioke/dieziaieke, eta hark/haiek bete egin beharko dute eskaera hori.

4. Aseguru propioak kontratatzeako baldintzak ez betetzea, lehen eskatutakoa kontuan hartuta, kontratu hutsegite larritzat joko da eta DONOSTIA KULTURAK eskubidea izango du berak eskatutako epean kontratatu gabe dauden aseguruek esleipendunaren/esleipendunen kontu eta kargura kontratatzeako.

25. PENALIZAZIOAK

Kontratatutako/kontratatutako, egotz dakizkiokeen/dakizkiekeen arrazoiak medio, Agirietan finkatutako edozein epe berandu bete badu/badute, kontratatutako prestazioak akatsekin gauzatu baditu/badituzte edo beste edozein kontratu baldintza bete ez badu/badute, DONOSTIA KULTURAK bere kabuz erabaki dezake kontratua/kontratuak **31. klausulan** aurreikusitako terminoetan suntsiaraztea edo kontratua/kontratuak gauzatzen jarraitzea. Azken kasu horretan, egunean 300 euroko penalizazioak sortuko dira DONOSTIA KULTURAREN alde.

Gauzatze akastunaren kasuan edo beste edozein kontratu baldintza ez betetzearen kasuan, akatsa zuzentzeko behar izan den denboraren ondorioz kontratuaren xede diren lanak atzeratu diren egunen gainean aplikatuko da penalizazio hori, edo ez betetzeak iraun duen guztizko egun kopuruaren gainean, hurrenez hurren.

Nolanahi ere, klausula honen babespean eska litezkeen penalizazioak metagarriak izango dira, benetan eragindako kalte eta galerei dagokienez.

Kontratua/kontratuak gauzatzen jarraitzea erabakitzen badu ere, ez betetzeak iraun bitartean, DONOSTIA KULTURAK edozein unetan hartu ahal izango du kontratua suntsiarazteko erabakia, lehen adierazitako ondorioekin.

Penalizazioak ordaintzeko, kontratistari/kontratistei ordainketa osoa edo partziala egiteko ordaindu beharreko kopurutik kenduko zaizkio/zaizkie, edo hortik kendu ezin direnean, behin betiko bermetik kenduko zaizkio/zaizkie, eta dagokion erreklamazioa jarriko da eratutako behin betiko bermea gainditzen duen kopuruaren gainean.

Edonola ere, kontratua/kontratuak suntsiaraztea zein jarraitzea erabakitzen badu ere, DONOSTIA KULTURAK bere aldetik erabaki ahal izango du egokitzat jotzen duen denboran zerbitzuak hirugarrenen bitartez egiten jarraitzea. Kasu horretan, jarraipen horren kostua kontratistari/kontratistei jasanaraziko dio/die, kalte-galeren ordainketa eta klausula honetan aurreikusitako gainerako ondorioak ezertan galarazi gabe.

26. KONTRATUAK LAGATZEA

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak ezin izango zaizkio inola ere hirugarren bati laga.

27. AZPIKONTRATATZEA

Kontratuen prestazioak ezin izango dira inola ere azpikontratatu.

28. KONTRATUEN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratuak aldatu ahal izango ditu, SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

1. loteari dagokionez, Agiri honen **1. eta 7. klausuletan** xedatutakoaren babesean, eta kontratua formalizatu ondoren ikusitako beharrak direla eta, DONOSTIA KULTURAK egokitzat jotzen badu enpresa kontratistari eskatzea **1. eta 7. klausuletan** adierazitako 30 orduko gutxienekoa baino psikosoziologia aplikatuko zerbitzu gehiago egiteko, enpresa kontratistak nahitaez egin beharko ditu.

Kasu horretan, 1. lotearen xede diren zerbitzuak egiteko eskainitako urteko prezioa zati 498 egitearen emaitzazko prezioan egin beharko ditu enpresa kontratistak psikosoziologia aplikatuko zerbitzu gehigarri horiek.

Nolanahi ere, DONOSTIA KULTURAK eskatuta eta Agiri honetan jasotako terminoetan izapidetuko dira aldaketak.

1. eta 7. klausuletan aurreikusitako kasuetatik kanpo, Kontratazio Organoak SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan aldatu ahal izango ditu kontratuak.

29. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN/ESLEIPENDUNEN ERANTZUKIZUNA

Enpresa esleipendunak/esleipendunek izango du/dute egiten dituen/dituzten prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen/dituzten omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek DONOSTIA KULTURARI edo hirugarrenei eragin diezazkieketen ondorioena ere.

Enpresa esleipendunak/esleipendunek ordaindu beharko ditu/dituzte kontratuak gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien edo langileek jasaten dituzten kalte-galera guztiak.

Enpresa esleipendunak/esleipendunek erantzungo du/dute langileek DONOSTIA KULTURAREN instalazioetan zein materialetan eragindako narriadura edo kalteen aurrean, eta bere kontura izango dira egin beharreko konponketak edo aldaketak.

Enpresa esleipenduna/esleipendunak da/dira erantzule bakarra/bakarrak langileenganako betebeharren aurrean, eta bere kontura dira langileen ordainsariak eta gizarte edo lan alorreko beste edozein gastu. DONOSTIA KULTURA ez da inoiz erantzule izango enpresa esleipendunaren/esleipendunen langileenganako betebeharren aurrean.

DONOSTIA KULTURAK ez du inongo erantzukizunik izango, enpresa esleipendunaren/esleipendunen ordezkarien, horien lankideen edo horiekin batera lan egiten duten pertsonen ekintzen edo omisioen ondorioz hirugarren pertsonen eragiten zaizkien kalteen aurrean.

30. KONTRATUAK ETETEA

DONOSTIA KULTURAK kontratua/kontratuak etetea erabakitzen badu, edo etendura SPKLTBren 216. artikuluko 5. atalean xedatutakoa aplikatzearen ondorioz egiten bada (ondorio horietarako berariaz aplikatzekoa da), dagokion akta egingo da eta bertan jasoko dira etendura eragin duten inguruabarrak eta kontratuaren izatezko gauzatze egoera.

Behin kontratua etetea erabaki eta gero, DONOSTIA KULTURAK enpresa esleipendunari ordainduko dizkio benetan jasan dituen kalte eta galerak.

31. KONTRATUAK SUNTSIARAZTEA

Kontratuak suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLTBren 223. artikuluko a) —85. artikuluan xedatutakoa ezertan galarazi gabe—, b), c), d), f), g) eta h) letretan aurreikusitakoak eta, oro har, edozein kontratu betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako kasuetako edozeinetan, automatikoki egingo da suntsiarazpena; nahikoa izango da DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratistari jakinarazpen fede emaila egitea.

Jakinarazpen hori jasotzen duenean, enpresa esleipendunak berehala entregatu eta DONOSTIA KULTURAREN eskueran jarri beharko ditu, hala eskatzen badio, kontratatutako prestazioak garatzeko berak ordu arte landu edo sortu dituen dokumentu guztiak, DONOSTIA KULTURAK entregatu dizkion dokumentuekin batera.

DONOSTIA KULTURAK gauzatze egoeraren akta idatziko du, eta bertan zehaztuko ditu berak jasotakotzat onartzen dituen zerbitzuak eta jaso gabekotzat jotzen direnak, baita horiek ez jaso izanaren arrazoiak ere. Horrela, DONOSTIA KULTURAK kontratua/kontratuak gauzatzen jarraitu ahal izango du, bere kontu edo hirugarren baten bitartez.

Hori guztia gero bidezkoa den kontratuaren/kontratuaren likidazio ekonomikoa egitea ezertan galarazi gabe, ondoren xedatutakoaren arabera.

Kontratua aurreikusitako arrazoiengatik suntsiaraztearen ondorio izan litezkeen erantzukizun ekonomikoak eta legez bidezkoak izan litezkeen bestelakoak kontratua benetan suntsiarazi eta dagokion dokumentazioa entregatu ondoren likidatuko dira. Hori ez da oztopo izango DONOSTIA KULTURAK kontratua gauzatzen jarraitu ahal izateko.

Kontratua suntsiarazten bada, enpresa kontratistak, lehen batean, benetan egindako lan guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du.

Kontratua enpresa kontratistari egotz dakioken edozein arrazoiengatik suntsiarazten denean, bidezkoak diren kalte-galeren bestelako ordainketez gain, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 20ren baliokidea izango den zenbatekoa sortuko da DONOSTIA KULTURA alde, izaera metagarria izango duena.

Bi kopuru horiek behin betiko bermetik eta enpresa kontratistari ordaintzeko dagoen prezioetik kenduko dira eta, hala badagokio, soberan geratzen den kopuruaren gainean erreklamazioa egingo da.

32. ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratuak izaera pribatukoak dira, eta, prestaketari eta esleipenari dagokienez, honako hauek arautuko dute: Ekonomia eta Administrazio Klausulen Agiri honek, Baldintza Teknikoen Agiriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN kontratatze barne jarraibideek.

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dituzte kontratuak: Ekonomia eta Administrazio Klausulen Agiri honek, Baldintza Teknikoen Agiriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, SPKLTBren I. liburuko V. tituluaren kontratuak aldatzeari buruz ezarritako arauak kontratuei aplikatzekoak izango dira.

Horrez gain, SPKLTB, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, 30/2007 Legea (urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuena) partzialki garatzen duena, eta HAKLEO aplikatzekoak izango dira Agiri honek testu arauemaile horietara espresuki igortzen duen guztian.

33. JURISDIKZIOA

Jurisdikzio ordena zibilak izango du kontratuak prestatzeari, esleitzeari, betetzeari eta iraungitzeari dagokienez alderdien artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Kontratuei lotutako auzirik izanez gero, Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira alderdiak.

Donostian, 2016ko uztailaren 18an

Jaime Otamendi Muñagorri
Zuzendari kudeatzailea



IFK-CIF 020005411
6634n VI 2009-11